



LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS



GAL-ak: SORRERA ETA GAL URDINAREN ANTOLAKETA

HISTORIA

2018-2019

Ikaslea: Jon Quintana Piñeiro

Tutorea: Javier Ugarte Telleria

Saila: Historia Garaikidea

AURKIBIDEA

Laburpena	1
1. SARRERA.....	2
2. TESTUINGURU HISTORIKOA.....	3
2.1. LEHEN URTE DEMOKRATIKOAK.....	4
2.2. ETA-ren KONTRAKO BORROKA NAZIOARTEAN	10
2.3. AURREKARIAK.....	12
3. GRUPOS ANTITERRORISTAS DE LIBERACIÓN (GAL)	14
3.1. GAL URDINAREN ANTOLAKETA	17
3.2. MODUS OPERANDI.....	22
4. ONDORIOAK.....	24
5. BIBLIOGRAFIA	26
6. ITURRI DIGITALAK.....	27

Laburpena

Lan honek 1983tik 1987ra Espainian sortutako Gerra Zikinaren organizazio militarrik ikertuko ditu, *Grupos Antiterroristas de Liberación* (GAL) izena zutenak. Taldearen handitasuna dela eta, ez dira horren ezaugarri guztiak azalduko, hots, lan honetan bakarrik GAL osoen kanpoko azala landuko da. Horretarako, bakarrik, sorrera eta GAL Urdinaren, GAL-en azpitalde famatuaren, antolamendua azalduko dira. Izan ere, helburua ez da GAL guztiak azaltzea, zer ziren eta zergatik sortu zirenaren ideia hartzea baizik, hots, gaiari nolabaiteko sarrera bat ematea. Gai hau lantzearen zergatia GAL-en inguruan dagoen historiografia txikia da. Urte askotan zehar ETA-ren inguruan historiografia luze eta sakona osatu den bitartean, Gerra Zikinaren inguruan garatu dena oso murrizta da. Horietatik asko 70. hamarkadakoaren ingurukoak dira eta GAL-ak, 80. hamarkadakoak direnak, gainetik lantzen dira, soilik. Hala ere, azpimarratu behar da, gutxi badira ere, batzuek sakondu egin dutela eta horietan oinarritu naiz lana aurrera eramateko. Gehienak 80. hamarkadatik aurrera kazetariak burututako lanak dira, GAL-en trama ezagutzera eman zutenak, eta, bestalde, organizazioan parte hartutako protagonisten memoriak ere erabili dira. Sorrera ulertzeko, 1982ko egoera kontuan hartu behar da. ETA-ren ekintza armatu bortitzaren aurrean PSOE-ko gobernu berriak erantzun bat eman behar zuen, bere eskura zituen baliabide demokratikoak erabiliz, terrorismoarekin amaitzeko. Hala ere, borroka horretan herrena zegoen, izan ere, ETA-ren base nagusia Frantzia zegoelako eta Miterrand-eko Frantziak ez zuelako laguntzarik eskaintzen. Muturrezko egoera honen aurrean, Espainiako gobernuo kide batzuek frankismotik jarauntsitako polizien garbiketa ezaz baliaturik, Gerra Zikinari hasiera eman zioten, GAL-ak sortuz (1983). Hiru sektore nagusi sortu ziren, estatuak finantziaturik: Marroia –CESID–, Berdea –Guardia Zibila– eta Urdina –Polizia Nazionalea–. GAL Urdinari dagokionez, esan behar da honen egituraketa José Amedo Fouce-ren, Bilboko Informazio Brigadako komisariordearen, inguruan antolatu zela. Honek, laguntzaile zein Estatuaren diruaz baliaturik, mertzenarioak kontratatzen zituen, Pirinio Atlantikoetako departamentuko euskal lurraldeetatik izua hedatuz. 1987an eta 27 hildako ondoren, GAL-ek armak utzi zituzten, helburu nagusia, Frantziaren kolaborazioa, lortu zutelarik.

Hitz gakoak: Gerra Zikina; Amedo; ETA; GAL; kontraterrorismo.

1. SARRERA

Espainiako lehenengo urte demokratikoak ez ziren batere errazak izan euskal gizartearentzat. Sortu berria zen Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE) gutxiengo batek Estatuko alderdi gehienek onartutako trantsizio erreformista ukatzen zuen. Hura, Euskadi ta Askatusuna (ETA) zen, zeina bere helburu politikoak lortzeko borroka armatuaren alde lerrokatzen zen. Honen aurrean, PSOE-ko gobernuak erantzun bat eman behar zuen, haatik, ezin zuen erabaki eraginkorrik hartu, Frantziaren utzikeriak ETA-ren kontrako borrokan Espainiako gobernuaren herren uzten baitzuen. Alabaina, ETA-ko kupula nagusia Frantziako hegoaldean aurkitzen baitzen eta Frantziak horren existentzia ukatzen baitzuen. Testuinguru honetan, Gobernuari lotutako kide batzuek ETA-ren auziari erantzun bat emateko helburuarekin, 1983an Gerra Zikinaren ekintza berrartu zuten, GAL talde paramilitarrak sortuz. Horren azkeneko helburuak ETA-ren kontrako borrokan Frantziaren parte-hartze zuzena lortzea eta ETA-rekin amaitzea ziren.

Gaur egunera arte, ETA-ren inguruko historiografia edota lan akademikoak anitzak izan dira. Talde armatua ikertu duten ikerlariek goitik behera aztertu dute; hots, organigrama, partaideak, zein bestelako elementuen inguruko lan ugari burutu zein argitaratu dituzte. Hala ere, GAL-en inguruan oso gutxi ikertu da. 80ko hamarkadaren amaiera eta 90eko hasieran burututako kazetaritza lanez zein ikerketa judizialez gain, ez da askoz gehiago ikertu. Gainera, azpimarratu behar da Estatuaren aldetik ikerketak aurrera eramateko zailtasun asko jarri direla.

Egoera guzti honek eta dokumentu sekretuen desklasifikazio ezak GAL-ak aztertzen dituzten lan akademikoen existentzia mugatu dute. Ondorioz, historiografiak fenomenoaz azal-azaletik landu du, sakontasunik gabe. Hori dela eta, gaur egun GAL-ak aztertzen dituzten iturriak orain arte kazetariak egindako ikerketa lana, protagonisten memoriak eta Baltasar Garzón epailearen epaia dira. Hau da, egunkarietako kronikak eta protagonistek idatzitako liburuak. Ildo honetan, Melchor Miralles eta Ricardo Arques-en lana azpimarratu behar da, zeinari esker GAL-en kasua argitaratu zen. Azkenik, iturriekin amaitzeko, esan behar da José Amedo Foucek, GAL Urdinaren koordinatzaileak, idatzitako memoriak ere erabili direla.

Beraz, egoera historiografiko honetan, lan honekin dagoen hutsunea betetzen jarraituko da, eta, horretarako, gaur egunera arte GAL-en inguruan ikertutako lanen informazioa ordenatuko da. Halaber, gai honen inguruan informazio asko dagoenez eta GrAL-aren irizpideak betetzeko helburuarekin, soilik icebergaren goiko punta azalduko da. Ondorioz, lanaren helburua Estatuko aparatuarekin lotura zeukan taldearen sorreraren zergatia ulertaraztea eta honen funtzionamendua azaltzea da. Hala ere, ez dira GAL osoak azalduko, izan ere, erakundeak 3 sektore¹ zituen: GAL Urdina –Polizia Nazionala–, GAL Berdea –Guardia Zibila– eta GAL Marroia –CESID–. Beraz, lanaren luzera eta GAL-en ikerketak sortzen dituen zailtasunak direla eta, bakarrik, GAL Urdinaren sektorea hartuko da aztergai. Hura Baltasar Garzón-ek egindako epaiketen ondorioz ezagunena izan zen.

Beraz, iturri zein irizpide horiek jarraituz historia politikoaren bidetik ekingo zaio, non GAL-en sorreraren zergatia eta GAL Urdinaren antolaketa zein *modus operandi*-a azalduko diren. Alegia, lan honen helburua 1983an hartu zen erabaki politikoa eta nola garatu zen ulertaraztea da; hots, barne garapena, kideak nola lortzen zituzten etab.

Azkenik, helburu guzti hauek aurrera eramateko hurrengo eskema erabili da. Hasieran, testuinguru historikoa jorratuko da, non Espainiako lehen urte demokratikoak landuko diren, PSOE-k boterea eskuratu arte. Honekin batera, atal berdinean, Frantziak Espainiari ETA-ren aurkako borrokan eskaini zion laguntza zein GAL-en aurrekariak azalduko dira. Azkenik, lanaren bigarren bloke bezala, GAL-en sorrera eta GAL Urdinaren antolaketa zein funtzionamendua azalduko dira.

2. TESTUINGURU HISTORIKOA

Lehenik eta behin, GAL-en sorrera ulertu ahal izateko 80. hamarkada inguruko testuingurua lantzea beharrezkoa da. Izan ere, GAL-ak bezalako organizazio armatuak ez dira bat-batean sortzen, horretarako faktore ezberdinek bat egin behar baitute. Hori dela eta, faktore horiek zeintzuk izan ziren ulertzeko, Espainiako Trantsizioaren amaiera, Frantziak ETA-rekiko zeukan jarrera eta GAL-ek aurretik izandako aurrekariak landuko dira.

¹ Zenbaki hori ikerlari gehienek erabiltzen duten zenbakia da. Hala ere, badaude beste batzuk 5 azpitalde desberdintzen dituztenak. Honen adibide Javier García ikerlaria dugu. Honek aipatutakoez gain, GAL Txuria edo *Frantsesa* –Polizia frantsesa– eta GAL Gorria –OAS-eko mertzenarioak– desberdintzen ditu. (García, Javier. *Los GAL al descubierto: la trama de la "guerra sucia" contra ETA*. Madril: El País-Aguilar, 1988, 20-21 or.)

2.1. LEHEN URTE DEMOKRATIKOAK

Francoren heriotzak erregimen diktatoriala atzean uzteko eta Europako demokrazia batean bilakatzeko irekitako atea aprobetxatu zuen Espainiako gizarteak. Hau zela eta, 80. hamarkadarako, Trantsizioko lehenengo urte nahasi zein gatazkatsuak alde batera utzita, erregimen demokratikoaren finkapena hasita zegoen. Hala ere, demokrazia oraindik gaztea zen eta oinarriak ez ziren guztiz sendoak. Egoera horretara iristeko, 1977ko hauteskundeen ondoren, Adolfo Suárez-ek Espainiako gizartearen gehiengoa barneratzen zuen trantsizio erreformista burutu zuen. Bidean 1978ko Konstituzioa zein autonomia erkidegoak onartu ziren eta EAE-ren kasuan 1979ko Gernikako Estatuarekin martxan jarriko zen, non lehenengo urteetan EAJ-k hegemonia izan zuen².

Hala ere, hasieratik ez zuten guztiek UCD edota AP bezalako alderdiek defendatzen zuten bide erreformista hura onartzen. Espainia mailan, demokraziaren lehenengo urtean, Frankismoan zehar oposizioa osatu zuten alderdiek –PCE-EPK, PSOE, EAJ...– erreformismoa ukatzen zuten plataforma politikoak sortu zituzten, horien artean 1976an sortutako *Plantajunta* zegoelarik³. Etenaren aldekoak ziren hauek, aitzitik, halako aldaketarik egiteko indarrak ez zuten⁴, UCD-ren bide erreformista onartu zuten, ondoren sortutako konstituzioa onartuz.

Bestalde, Euskadi mailan egoera nahiko ezberdina zen, alderdi abertzaleen ondorioz. Giro abertzaleko politikan sigla asko desberdintzen ziren. EAJ alderdi historikoaz gain, EIA, EMK, LAIA, EHAS, LKI, ORT... bestelako alderdiak sortu ziren. Oro har, hiru talde nagusi desberdintzen ziren: lehenengoa EAJ-k osatzen zuen, eta hurrengo biak ETA-k 1974ean jasandako banaketatik sortutako taldeek. Alde batetik ETA pm-ren (politiko-militar) beso politikoa, 1977an Euskadiko Ezkerran bilakatuko zena, eta bestaldetik, ETA m-ren (militar) ordezkari politikoa, KAS plataforma izango zena. Guztiak bide erreformistaren kontra lerrokatzen ziren, haatik, 1977ko hauteskundeen aurrean jarrera ezberdinak zituzten; lehenengo biak aurkeztu nahi ziren, hirugarrena, aldiz, abstentzioaren alde zegoen.

² De la Granja, José Luis, Justo Beramendi eta Pere Anguera. *La España de los nacionalismos y las autonomías*. Madril: Editorial S.A., 2001, 226-228 orr.

³ *Ibid.*, 223 or.

⁴ Arazoa zen armadaren gehiengoaren babesa ez zeukatela. Egoera honetan ezinezkoa zen garrantzi handiko aldaketarik burutzea.

Halabeharrez, Telesforo Monzónnek saiakerak egin zituen egoera berri honen aurrean mundu abertzaleak erantzun bakarra izan zezan, euskal fronte bat sortuz⁵. Xede hori lortzeko, 1977an, Baionan, Chibertako bilera⁶ ospatu zen. Bertan, aurreko paragrafoan aipatutako jarrerek talka egin zuten. ETA pm-ren anbiguotasunaren aurrean⁷, ETA-m-ren helburua EAJ boikotaren alde jartzea zen⁸, baina ez ziren akordio batera iritsi. Horrela, Chibertatik abertzaleak lehen aipatutako hiru lerro politikoetan banandu ziren. Hiruen helburua berdina bazen ere, independentzia lortzeko bidea ezberdina izango zen.

Beraz, 1980ko hamarkadarako, euskal politikan sektore guztiek erregimen berria onartzen zuten, 1978an sortutako Herri Batasunak (HB) izan ezik⁹. Alderdi hura 1975ean sortutako KAS-aren¹⁰ jarraipena zen, bide-orri berdinarekin, eta ETA-m-ren beso politikoan bilakatu zen. Beraien esanetan, Madrileko gobernua oraindik aitzinean izandako gobernu errepresiboa zen, eta demokrazia zein autonomia soilik bortizkeria hura ezkutatzeko erabiltzen ziren fatxadak¹¹. Euskal Herri independentea lortu arte egoera hura ez zen konponduko.

Bitartean, Espainiako gobernuak, UCD-ren kontrolpean, 1980an estatuaren egitura modernizatzeko zein europearizatzeko eta demokraziaren oinarriak ezarriko zituen erreformak¹² aurrera eramaten zituen, haatik, soilik kanpoko itxura moldatu zuen. Horren arrazoia demokraziaren indar ahula zen, izan ere lehen urte horietan Adolfo Suárez-ek arreta handiz ibili behar baitzuen adostasun egoera ez apurtzeko. Oro har, armada frankistari beldur zitzaion ea proiektua bertan behera botako zuten¹³. Hori zela eta, bazekien hobe zela sektore militarra –Estatuko Segurtasun-Indarrak (ESI) ere– bakean uztea eta aldaketa sakonik ez egitea. Ondorioz, estatuaren estolderiak ez ziren garbitu, hots, “diktaduratik jarauntsitako instituzio zibil zein militar nagusiak ez ziren

⁵ Fernández Soldevilla, Gaizka. “Ellos y nosotros. La cumbre de Chiberta y otros intentos de crear un frente abertzale en la transición”. *Historia del presente* 13 (2009), 97-132 orr., 104 or.

⁶ Honen inguruan gehiago jakin nahi izatekotan Fernández Soldevilla, Gaizka. “Ellos y nosotros...” artikulua irakurri.

⁷ Fernández Soldevilla, Gaizka. “Ellos y nosotros...”, 106 or.

⁸ Fusi, Juan Pablo eta José Antonio Pérez (ed.), *Euskadi 1960-2011: Dictadura, transición y democracia*. Madril: Editorial Biblioteca Nueva, S.L., 2017, 74 or.

⁹ Morán Blanco, Sagrario. *ETA Entre España y Francia*. Madril: Editorial Complutense, 1997, 104 or.

¹⁰ Honen inguruan gehiago jakiteko, ikusi Morán Blanco, Sagrario. *ETA...*, 104 or.

¹¹ Woodworth, Paddy. *Guerra Sucia, Manos Limpias: ETA, el GAL y la democracia española*. Bartzelona: Editorial Crítica, S.L., 2002, 273 or.

¹² Erreformen inguruan gehiago jakin nahi izatekoan Ruiz, David. *La España Democrática (1975-2000): Política y Sociedad*. Madril: Editorial Síntesis S.A., 1.1 kapitulara jo.

¹³ Ruiz, David. *La España...*, 59 or.

purgatu”¹⁴. Egia da 1980rako begi-bistan egiten ziren polizia-errepresio metodoak, martxoak 3ko gertakariak adibide izango liratekeenak, alde batera utzita zeudela, haatik, metodo demokratikoak ez zituzten guztiz barneratu¹⁵. Agian, Suárezek pentsa zezakeen jarrera horrekin sektore militarra demokraziarako irabazita zuela.

Bestalde, urte horietan, ETA-ren terrorismoak zein talde paramilitar anti-ETA-ren ekintzak zeuden. Lehenengoari dagokionez, esan behar da 1978-1980 tartea ETA-ren eperik odoltsuena izan zela¹⁶, 239 pertsonekin akabatuz. Atentatu gehienek jomuga sektore militarra zen, bai armadako, bai ESI-eko kideak. Horrek sortutako beldurrarengatik, pentsa daiteke, talde paramilitarrak segurtasuneko sektorearekin erlazioa zuten kideez osatuak eta diktaduratik jarauntsitako polizia estrukturetatik sortuak izan zirela¹⁷. Horietatik aipagarriak *Batallón Vasco Español* (BVE), ATE edota Triple A dira, euskaldun mundua kikiltzen saiatzen zirenak.

Testuingurua horrela zegoelarik, 1980ko udaran UCD barne krisi batean murgildu zen. Alderdia osatzen zuten sektore ezberdinen artean liskarrak hasi ziren eta, azkenean, terrorismoak sortutako segurtasun-gabezia, okerragotze ekonomiko eta alderdiko barne arazoengatik 1981eko urtarrilaren 29an Adolfo Suárezek dimititu zuen¹⁸. Demokraziaren lehen dimisioa zen hura eta ezegonkortasun honek ez zuen erregimenaren finkapenean laguntzen.

25 egun ondoren, egindako erreformek ekarritako aldaketa kulturek zein momentuko ezegonkortasun politikoak sektore militarren erreakzioa piztu zuten. Nahiz eta UCD-k sektore militarra kontrolatua zuela pentsatzen bazuen ere, 1981eko otsailaren 23an, Leopoldo Calvo-Sotelo-ren inbestiduran, Antonio Tejero teniente-koronela Guardia Zibileko beste kideekin batera, eskuan armak zituelarik, Kongresuan sartu eta estatu-kolpe bat eman zuen, 23-F-a¹⁹.

Jakina den bezala, estatu-kolpeak ez zuen aurrera egin eta demokraziak bere bidea jarraitu ahal izan zuen. Hala ere, honek Trantsizioaren bilakaera baldintzatu zuen.

¹⁴ Aguilar Fernández, Paloma. “Memoria histórica y legados institucionales en los procesos de cambio político”. *Revista Internacional de Filosofía Política* 14 (1999), 31-46 orr., 41 or.

¹⁵ Salvados. “Bajando a las cloacas 2”. Bideo online. *Atresplayer*. Atresplayer, 2018ko apirilak 29. Webgunea: https://www.atresplayer.com/lasexta/programas/salvados/temporada-13/bajando-a-las-cloacas-2_5ae35b69986b2898b3282410/ (kontsulta data: 2018ko abenduak 20)

¹⁶ De la Granja, José Luis, Justo Beramendi eta Pere Anguera. *La España de...*, 225 or.

¹⁷ Fusi, Juan Pablo eta José Antonio Pérez (ed.), *Euskadi...*, 86 or.

¹⁸ Ruiz, David. *La España...*, 56 or.

¹⁹ Gertakari honen inguruan gehiago jakiteko Ruiz, David. *La España...*, 59-64 orr. irakurri.

Hemendik aurrera, kuarteletako sable zaratek erreformak burutzeko orduan gauzak birritan pentsaraztea egin zuten. Demokraziaren proiektua galtzeko beldurra zegoen. Gainera, zapuztu egin ziren kolpe saiakerek –hiru 23-F baino lehen²⁰ eta beste hiru ondoren²¹– sentrazio hura areagotu zezaketen. Beraz, badirudi, hobe zela militarrek pozik edukitzea.

Adolfo Suárezen lerro berdina jarraituz, urtebete egon zen Calvo-Sotelo gobernuburuan, eta ez zen batere erraza izan. Gainera, UCD-ren barne krisiak jarraitzen zuen, alderdiaren desintegrazioa sakontzen zuena. Azkenean, faktore ezberdinen ondorioz, 1982an gorteak desegin eta hauteskundeak ospatu ziren.

Hauteskunde horiek PSOE-k, Felipe González buru zuelarik, irabazi zituen. Alderdi sozialistak modernizazio, europeizazio zein demokratizazio prozesuan barneraturik zegoen Espainia hartu zuen eta alderi horietan sakondu nahi zuen. Alfonso Guerrak hauteskundeak irabazterakoan “*vamos a poner a España que no la va a reconocer ni la madre que la parió*”²² aitortu zuenean argi utzi zituen helburu handizale horiek.

“Lehenengo aldiz 50 urteetan frankismoarekin zerikusia ez zuen gobernu talde batek boterea zeukan, gainera, beraien ekintzak aurrera eramateko eskuak garbiak zituzten”²³. Honek ilusioa ekarri zion Espainiako gizarteari. Talde-gobernu berriak erreforma ezberdinak aurrera eraman zituen, Espainiari itxura modernoagoa eman nahian, hala nola, hezkuntza, kultura zein ekonomia arloetan²⁴. Halaber, aurreko epe osoan zehar garatzen joan ziren elementu demokratikoak bere tokian kokatu zituzten, demokrasiari oinarri sendoagoak ezarriz.

Prozesu demokratiko horretan PSOE-k lan neketsu bat eraman behar zuen aurrera, alegia, armada zein ESI-en instituzioen garbiketa, herentzia frankista zutenak. Helburu hura Barne-arazoetako eta Defentsako ministeriokoek gauzatu behar zuten. Lehenengoan sakonduz, bertan egitura aukeratzeko arazoak egon ziren, alabaina, Rafael Veraren esanetan, ministerio honetan, azkenean, eskuak zikitzen ziren eta inork ez zituen bere eskuak zikindu nahi²⁵. Oro har, ezkerreko jendeak nahiago zuen beste gauza

²⁰ Ruiz, David. *La España...*, 60 or.

²¹ *Ibid.*, 75-76 orr.

²² Salvados. “Bajando...”

²³ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 50 or.

²⁴ Ruiz, David. *La España...*, 72-78 orr.

²⁵ Salvados. “Bajando...”

erosoagoak zuzentzea²⁶. Gainera, Paddy-k bere liburuan esaten duen bezala “*una de las sillas calientes era la del Ministerio del Interior (...) porque no se había llevado a cabo la menor reforma en las fuerzas policiales desde los tiempos de Franco*”²⁷. Bestaldetik, PSOE-k ez zuen inolako esperientziarik halako egoerak maneiatzen, hots, hasiberriak ziren.

Azkenean, berrikuntza horri aurre egingo zion ministerioaren buruan Felipe Gonzálezen taldetik segurtasunaren arloan esperientzia izan zuten pertsonak jarri zituzten, eskasa bazen ere. Ministro bezala José Barrionuevo, batzuen ustetan eskuindar ideologiko jatorriko pertsonaia²⁸, izendatu zuten. Honekin batera, Rafael Vera, Madrilgo udaletxean segurtasun arloa zuzendu zuena, Espainiako Estatu Segurtasunerako idazkari bezala izendatu zuten, zeinak bere hitzetan “[yo] no tenía experiencia, pero aun así [era] en el PSOE de los que más experiencia tenía”²⁹ aitortu zuen. Talde honek ministerioan sartzerakoan, baliteke, erreforma bat aurrera eramateko intentzioa izatea, haatik, ETA-ren ekintzak ez zien asko lagundu³⁰. Azkenean, egoera honetan, aldaketa handirik ez egitea pentsatu zuten, hobe zela garbiketa beste momentu baterako uztea. Rafael Verak berak, Salvados-ek egindako saio batean, defendatzen zuen koiuntura honetan hoberena ESI-eko buru frankistak mantentzea eta demokraziarako irabaztea zela³¹. Gainera, Barrionuevok tradizio demokratiko gutxiko polizien maila igoerak onartu zituen³². Izan ere, kontuan hartu behar da borroka antiterroristan esperientzia gehiago zutenak pertsonaia hauek zirela. Beraz, PSOE-k erreforma prozesuan sakondu bazuen ere, estolderia ez zuen garbitu, ESI-en estruktura frankistak jarraituz³³.

Biolentziaren auziari dagokionez, 1981etik aurrera talde paramilitarren ekintza asko murriztu zen, 1981 eta 1982an bi hilketa gauzatu³⁴. Bestaldetik, ETA-k bere ekintza geldituko zuenaren itxaropena zegoen. PSOE-k berak ere, bere burua erregimen demokratiko eta modernoaren isla bezala ikusten zuenak, hasieran pentsatzen zuen ETA-k ekintza armatua utziko zuela, edo gutxienez tregua bat emango zuela³⁵. Horren

²⁶ *Ibid.*

²⁷ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 50 or.

²⁸ *Ibid.*, 52 or.

²⁹ Salvados. “Bajando...”

³⁰ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 52 or.

³¹ Salvados. “Bajando...”

³² Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 52 or.

³³ Ruiz, David. *La España...*, 78 or.

³⁴ Fusi, Juan Pablo eta José Antonio Pérez (ed.), *Euskadi...*, 214 or.

³⁵ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 52 or.

adibide PSOE-k UCD-ko gobernuan Antonio Rosón-ek hasitako negoziaketa-politikaren jarraipena izan zen, zeinari esker, 1982an, eta EE-ko buruzagien laguntzarekin ETA-pm-ren desagerpena lortu zen. Hala ere, ekintzaren etenaldiaren ideia ez zen inoiz bete eta ETA-k, KAS alternatiba eskuan zuelarik, borroka armatuarekin jarraitu zuen³⁶.

PSOE-k ETA-m-ren arazoari aurre egin behar zion. Arazo larria zen, izan ere, urtero ETA-k 100 pertsona hiltzen baitzituen batezbesteko. Erabaki bat hartu beharra zuten. PSOE barruan ikuspuntu ezberdinak kontrajarri ziren, nagusienak bi izanik. Lehenengoa politika zuzenagoa zen, hots, ETA-ri eraso zuzena egitea, zeinaren defendatzaile sutsuenak Euskadiko PSOE-an zeuden, hala nola Ricardo García Damborenea –PSE-Bizkaiako idazkari nagusia– edo Julián Sancristobal –1982tik 1984era Bizkaiako gobernadore zibila–³⁷. Hauekin batera purgatu ez ziren ESI-eko buru asko zeuden³⁸. Bigarren ikuspuntua bide demokratikoagoak erabiltzearen zein negoziaketaren aldekoa zen, Rafael Veraren kasu bere hitzetan³⁹.

Verak Salvados-en aditzera ematen zuen antzera, baliteke, Gobernuako kide batzuek erantzunen bila Europara jo izana, non herrialde demokratiko batzuek talde terroristei aurre egin behar zieten⁴⁰. Bertan, orokorrean, metodo demokratikoak aldarrikatzen zituzten “neurri antiterrorista zorrotzak ezarri ziren”⁴¹, haatik, beti “*se han producido innumerables abusos en las fases de detención, interrogatorio, prisión preventiva, juicio y régimen penitenciario, que han fortalecido y legitimado coyunturalmente la acción terrorista*”⁴². Adibideen artean, Alemaniako Errepublika Federala-koa (AEF) azpimarratuko da. AEF-n Baader-Meinhof⁴³ talde terrorista zegoen. AEF-ek gauzatutako borroka antiterrorista horretan, sozialdemokratak gobernatzen ari ziren garaian, 1977ko Stammheim-go heriotzak eman ziren. Gertakari horretan, Stammheingo kartzelan zeudelarik, Andreas Baader, Han-Karl Raspe eta Gudrun Ensslin-en gorpuak

³⁶ De la Granja, José Luis, Justo Beramendi eta Pere Anguera. *La España de...*, 230 or.

³⁷ Amedo Fouce, José. *Cal Viva. Un relato estremecedor: la verdad definitiva desde las entreñas de los GAL*. Madril: La Esfera de los Libros S.L., 2013, 33 or.; Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo: El Estado contra ETA*. Bartzelona: Plaza & Janes/Cambio 16, 1989, 159 or.

³⁸ Salvados. “Bajando...”

³⁹ *Ibid.*; Amedo Fouce, José. *Cal Viva...*, 33 or.

⁴⁰ Salvados. “Bajando...”

⁴¹ González Calleja, Eduardo. *El Laboratorio del Miedo: Una historia general del terrorismo, de los sicarios a Al Qaeda*. Bartzelona: Editorial Crítica S.L., 2013, 461 or.

⁴² *Ibid.*, 464 or.

⁴³ Honen inguruan gehiago jakin nahi izatekotan, ikusi González Calleja, Eduardo. *El Laboratorio...*, 383-393 orr.

agertu ziren, lehenengo biak tiroekin eta hirugarrena urkatuta⁴⁴. Aipagarria da zeldak bakartuak zeudela, beraz, nola lortu zituzten armak? Inork ez du zalantza hau argitu. Gainera, AEF-ek eskainitako informeak honen inguruan sor zitezkeen dudak ez zituen argitzen⁴⁵.

Azkenean, badirudi, metodo zuzenaren aldeko sektorearen ideiak gero eta indar handiagoa hartu zuela eta hartutako erabakia, kanpora begira, Plan ZEN-a⁴⁶ –*Plan Zona Especial Norte*– izan zen, 1983ko otsailean indarrean jarri zena⁴⁷. Honek ESI-eko organigramaren aldaketa ekarri zuen, deszentralizazio bat ekarriz. Bestalde, “*recomendaba amedrentar a los simpatizantes de la organización terrorista con amenazas, haciéndoles «llamadas telefónicas a horas intempestivas que les mantengan en constante estado de inseguridad»*”⁴⁸. Euskal Herrian PSE-PSOE izan ezik, beste indar politikoek ukatzen zuten plana zen hau⁴⁹.

2.2. ETA-ren KONTRAKO BORROKA NAZIOARTEAN

PSOE-k ETA-ren kontrako politika aurrera eramateko zailtasun nabarmena zuen: ETA bi estatuetan zegoen, Espainia eta Frantzia. Ondorioz, Espainiako gobernuak borroka horretan eraginkorra izan zedin, Frantziaren laguntza behar zuen.

1961etik aurrera, Francoren gobernuak ETA-ren kontrako bilaketa eta errepresioa hasi zuenean⁵⁰, ETA-ko buruek erabaki zuten hoberena Bidasoaren beste aldera igarotzea zela. Ondorioz, kupulak Pirinio Atlantikoko departamentuan kuartel politiko, finantzario eta propagandistako nagusiak ezartzea erabaki zuen⁵¹. Honekin batera, taldekide asko ere Frantziara ihes egin zuten. Izan ere, Francoren diktaduraren iheslariak zirenez, errefuxiatu gisa hartzen baitzituzten, babes estatu handia eskuratu. Gainera, frantsesek ETA faxismoaren kontra borrokatzen zuen organizazio bat bezala

⁴⁴ Sierra, Julio. “Detalles desconcertantes en el suicidio de los tres dirigentes del grupo Baader-Meinhof”, *El País*, 1977 urriak 19. https://elpais.com/diario/1977/10/19/internacional/246063613_850215.html (kontsulta data: 2019ko maiatzak 10)

⁴⁵ *Ibid.*

⁴⁶ Honen inguruan gehiago sakondu nahi izatekotan, ikusi Rubio, Antonio eta Manuel Cerdán. *El origen del GAL: “guerra sucia” y crimen de estado*. Madril: Ediciones Temas de Hoy S.A., 1997, 25 or.

⁴⁷ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 53 or.

⁴⁸ Rubio, Antonio eta Manuel Cerdán. *El origen...*, 25 or.

⁴⁹ *Ibid.*, 26 or.

⁵⁰ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 53 or.

⁵¹ *Ibid.*, 53 or.

ikusten zutenez⁵², oro har, ez zuten arazo handirik jartzen babesterako orduan. Baldin eta Frantziak 1972an igorritako zirkularra betetzen bazuten, hots, “*no interferir en la política doméstica del país anfitrión; no traer peleas, riñas de su propio país a territorio nacional de una manera violenta; no poner en peligro la seguridad interna o externa del país anfitrión ni sus relaciones diplomáticas*”⁵³, ETA-ko kideek Frantzian ez zuten arazorik izango.

Gainera erbesteratu ziren horiek, Frantziako hegoaldean, etxean bezala zeuden, bizitza publiko normal bat burutu zezaketen eta organizazioak babes-sozial handia zuen. Egoeraz baliaturik, ETA-ko kideak Frantzian atentatuak prestatzen zituzten, Espainian burutu, eta Bidasoa gurutzatzen zuten, eremu frantsesean deskantsatzeko⁵⁴. Guzti honek izugarrizko abantaila eskaintzen zion ETA-ri eta *santutegi frantsesa* bezala ezagutuko dena sortu zen. Baliteke Frantziak sortu zen santutegia ezagutzea, haatik, ETA-k edozein momentuan bere estatuaren kontra jo zezakeenez, ematen du akordio batera iritsi zirela; ETA-k Frantziaren interesak ukitzen ez zituen bitartean, talde terrorista ez zen ukituko⁵⁵.

Espainiako polizia, santutegiaz ohartarazi zen momentutik, Frantziako gobernuaren kolaborazioaren bila egon zen. Hala ere, diktadurapean zegoen bitartean Frantziak ez zion lagunduko. Demokraziaren etorrerarekin gauzak ez ziren asko aldatu, izan ere, Frantziak ez zuen Espainia benetako herrialde demokratiko bat bezala ikusten eta, gainera, 23-F-ak hipotesi hau indartu zuen⁵⁶. Halaber, 1981ean oraindik lehen aipatutako ideia erromantikoak jarraitzen zuen, Gaston Deferre-k, Frantziako barne-ministroak, *Le Nouvel Observateur*-ren “euskal abertzaleak Frantziako Erresistentzia naziarekin konparatzen zuenean” erakusten zuen bezala⁵⁷. Ondorioz, aldaketen artean, 1979an iheslariari errefuxiatu politikoaren estatutua deuseztatu zitzaie, haatik, asiloak mantendu ziren⁵⁸.

1982an, PSOE-k, boterea eskura zuelarik, bi gobernuetan sozialistak egonda, Frantzia aldetik jarrera aldaketa bat egongo zela pentsatzen zuen. Aitzitik, François Mitterrand-

⁵² Díaz Cerveró, Elba. “La representación del terrorismo de ETA en el diario francés Le Monde.”. *Doxa.comunicación* 9 (2009), 165-189 orr., 175 or.

⁵³ Morán Blanco, Sagrario. *ETA...*, 102 or.

⁵⁴ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 53 or.

⁵⁵ Morán Blanco, Sagrario. *ETA...*, 39 or.

⁵⁶ *Ibid.*, 135 or.

⁵⁷ *Ibid.*, 135 or.

⁵⁸ *Ibid.*, 119-120 orr.

ek 1983rako ez zuen Espainia demokrazia bat bezala onartzen, ondorioz, kolaborazioa ukatu zuen⁵⁹. Uneoro Frantziako gobernuak ETA-k bere lurraldean zeukan presentzia ukatzen zuen, Deferre-Barrionuevo bileran gertatutakoak erakusten duen bezala. Barrionuevok Frantzian bizi ziren ETA-ko kideen zerrenda ematerakoan Deferrek “[t]odo esto es propaganda vieja. Debe buscarlos usted en España”⁶⁰ erantzun zion. Bestalde, kontuan hartu behar da 1982. eta 1983. urteetan Frantziak terrorismoarekin arazo handia zuela eta ez zuen nahi Pirinio Atlantikoetan beste fronte bat irekitzea⁶¹.

Laburbilduz, Felipe Gonzálezek, ETA-ren kontrako borrokan, ez zuen Frantziaren laguntza lortu eta hau GAL-ak sortuko zituen hazietako bat izango zen⁶².

2.3. AURREKARIAK

Aurreko ataletan ikusi den bezala, Trantsizioko lehenengo urteetan, 1981era arte, ETA-ren terrorismoaren aurrean talde paramilitar anti-ETA aunitz sortu ziren, horien artean nagusiena BVE zelarik. Horiek, idazle batzuen usteetan, Espainiako estatuak 1973tik aurrera ETA-ren kontrako hasitako Gerra Zikinaren parte ziren⁶³, Gerra Zikinaren lehenengo faseko (1973-1981) elementu⁶⁴ eta GAL-en aurrekaritzat hartzen direnak.

Mugarria Carrero Blanco-k 1973an Gobernuko Presidentetzaren Dokumentazio Zerbitzu Zentrala⁶⁵ (SECED) sortu zuenean kokatzen da⁶⁶. Erakunde honen bidez, Carrero Blancok informazio zerbitzuak bateratu eta organo bakar batean koordinatu zituen, ETA-ren kontrako borroka eraginkorra lortzeko. Badirudi, honen bidez fase honetan sortuko zen “kontrolgabeko” biolentzia, estatu-terrorismoaren arma koherente batean bilakatu zena, zuzendu zela⁶⁷. “Operación Ogro izenez ezagututa zen atentatuak ez zuen geldiarazi SECED-en ibilbidea”⁶⁸ eta, gainera, Gerra Zikinaren ekimena azkartu zuen. Atentatuak gizarteko sektore batean mendeku nahia piztu zuen, talde parapolizial ezberdinei sorrera emanaz: *los Guerrilleros de Cristo Rey*, BVE, *Anti-Terrorismo ETA*

⁵⁹ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 54 or.

⁶⁰ Morán Blanco, Sagrario. *ETA...*, 174 or.

⁶¹ *Ibid.*, 171 or.

⁶² Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 54 or.

⁶³ *Ibid.*, 29 or.

⁶⁴ *Ibid.*, 33 or.

⁶⁵ Gerora CESID (1977-2002) izango zena eta gaur egungo CNI-ren (2002tik aurrera) aurrekaria den erakundea.

⁶⁶ Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30 urte*. Donostia: Elkar Argitaletxea; Andoain: Berria L. G., 2013, 5 or.

⁶⁷ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 33 or.

⁶⁸ Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30...*, 5 or.

(ATE) edo *Acción Nacional Española* (ANE)⁶⁹. Talde horiek frankista amorratuak ziren militarrez zein sikarioz osaturik zeuden. Sikarioak Frantziako OAS⁷⁰, Italiako *Ordine Nuovo* zein *Avanguardia Nazionale* eta Latinoamerikako talde paramilitarreko kideak ziren, tokian-tokiko justiziatik ihes egiten zutenak, Francoren gobernuak eskainitako babesa aprobetxatuz⁷¹. Ondorioz, 70. hamarkadan Espainia mertzenario faxistez beterik zegoen eta egoera honek Paddy Woodworth-ren hitzetan:

“...creaba un sentimiento de lealtad hacia España por parte de estos guerrilleros fascistas. Además, ese compromiso ideológico les convertía más fiables que otras figuras clandestinas que solo se movían por dinero. Por otra parte, estaban mejor entrenados desde el punto de vista militar, especialmente el uso de armas.”⁷²

Beraz, elementu hauek erabiliz, pentsatzen da, 1974tik aurrera Roberto Conesa-k, *Billy el Niño*-ren laguntzarekin, talde anti-ETA horien egituraketa burutu zuela⁷³. Horrela, Frantziako santutegia ikusita, 1975ean Gerra Zikinari hasiera eman zitzaion, Pirinioetako bi eremuetan atentatuak⁷⁴ egiten hasiz⁷⁵.

Adolfo Suárez, boterea eskuratu ondoren, demokratizazio prozesua zela eta, biolentzia hura geldiarazten saiatu zen, Frantzian atentatuen etenaldi bat lortuz⁷⁶. Hala ere, 1978tik aurrera, ETA-ren garai odoltsua hasi zenean, 1975eko ekimenari hasiera eman zitzaion berriz, oraingoan protagonista BVE izanda. Lehen aipatu den bezala, BVE-ko egituraren ardatza kontratatutako sikario faxistak ziren, non pertsonaiarik garrantzitsuenetarikoena Jean-Pierre Cherid⁷⁷ zen. Hura Espainiako zerbitzuen eta OAS-ekoen arteko lotura zen, informazioa, sikarioak eta armak lortzen zituen⁷⁸.

⁶⁹ García, Javier. *Los GAL al...*, 68 or.

⁷⁰ *Organisation de l'Armée Secrète* izena zuen eskuin muturreko talde paramilitarra izan zen, 1961eko Aljeriako generalak saiatutako estu-kolpearen ondorioz sortutakoa. Helburua Aljeriaren independentzia ekiditea zen. Bere kideetatik Jean Pierre Cherid aipagarria izan zen, gerora BVE zein GAL Urdinaren egituran garrantzi nabarmena izan zuena.

⁷¹ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 33 or.

⁷² *Ibid.*, 34 or.

⁷³ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 118 or.

⁷⁴ Frantzian egindako lehenengo atentatua 1975eko ekainaren 5ean izan zen, Miarritzen. Egun hartan *Josu Ternera* zen jomuga. Hala ere, hildako bakarra Michel Cardona izan zen, atentatua prestatzen ari zen gizona.

⁷⁵ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 35 or.

⁷⁶ *Ibid.*, 35 or.

⁷⁷ Bere bizitzaren inguruan gehiago jakin nahi izatekotan, ikusi “Cherid, el más grande”, Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...* liburuaren kapitulua.

⁷⁸ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 119 or.

Cherid-ek sortutako komandoarekin batera, italiar faxistez zein Portugaleko zerbitzu sekretuko (PIDE) kideez osaturikoak ere zeuden⁷⁹. Bestalde, BVE-ren jardun esparrua ez zen soilik Frantziara mugatzen, are gehiago, bertan oso gutxi esku hartu zuen. EAE-n izan zen aztarnaren gehiengoa utzi zuen lekua, Donostia-Errenteria-Andoain artean *heriotzaren triangela* sortuz⁸⁰. Halaber, ematen du Euskal Herritik kanpo ere jardun zirela; adibidez, Amerikan, non 1980an Jokin Etxeberria hil zuten⁸¹.

Idazle batzuen usteetan, talde hauek zeharka estatuarekin erlazionaturik zeuden eta horren adibide 1980an Hendayais tabernako (Hendaian) atentatua izan liteke. Metrailaketa egin eta gero, hiltzaileek mugarantz ihes egin zuten, polizia-kotxe baten kontra joz. Atxilotuak izan behar zirenean hiltzaileek Manuel Ballesteros-en, *Mando Único de la Lucha Antiterrorista*-ko buruaren, telefono zenbaki atera zuten, polizia espainiarraren isil-mandatariak zirela esaten zuten bitartean⁸². Dei batzuk egin ondoren askatu zituzten. Ez zen inoiz kasu hura argitu. Fase honetan, pentsatzen da, gobernu eta talde hauen arteko erlazioa gobernuko buruek ahalik eta datu gutxien jakitean eta gobernuak atentatuak gertatzerakoan beste alde begiratzean zetzala⁸³.

Azkenean, BVE zein beste taldeen ekintza 1981ean desagertu zen, Calvo-Soteloren gobernu hasi zenean⁸⁴. Balantze gisa, 1977-1981 urteen artean talde hauen hildakoen kopuru⁸⁵ zehatza jakitea ezinezkoa da. Luis Castells-ek egindako kalkuluen arabera 37 hildako izan ziren⁸⁶. Bestalde, 1975-1977ko su etenak, idazle batzuren usteetan, UCD-k talde horiengan onartu nahi ez zuen baino askoz kontrol handiagoa zuela adierazten du, eta beraien interesetarako erabilitako talde “inkontrolatuak” zirela⁸⁷. Laburbilduz, kontrolatuak ziren “inkontrolatuak” zirela.

3. GRUPOS ANTITERRORISTAS DE LIBERACIÓN (GAL)

PSOE-k urtero ehundaka hildako uzten zituen terrorismoari aurre egin behar zion eta, gainera bakarrik egin behar zuen, Frantziaren ezezkoaren ondorioz. Bestalde, Europako

⁷⁹ Cassan, Patrick. *Francia y la cuestión vasca*. Tafalla: Txalaparta, 1998, 223 or.

⁸⁰ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 43 or.

⁸¹ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 94 or.

⁸² Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 32 or.

⁸³ *Ibid.*, 34-42 orr.

⁸⁴ *Ibid.*, 49 or.

⁸⁵ Ez dira zenbaki ofizialarik aurkitu. Argitu gabeko hilketa asko daude, eta horren ondorioz, ikerlari bakoitzak bere zenbaki propioak ematen ditu.

⁸⁶ Fusi, Juan Pablo eta José Antonio Pérez (ed.), *Euskadi...*, 87 or.

⁸⁷ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 49 or.

herrialde demokratikoen ekintzek, Baader-Meinhof-en kasua adibide gisa hartuz, agian, Gerra Zikinaren aldeko ideia eman zuten. Azkenik, ematen du, PSOE-ko kideen artean, aipatu den bezala, ETA-rekiko jarrera intolerantea nagusitzen zela. Faktore guzti horien ondorioz, Gobernu inguruko kide batzuek, egoera gogor batean⁸⁸, erabaki politiko bat hartu zutenaren itxura dago. Horretarako, ESI-eko garbiketa ezak utzitako metodo ez-demokratikoen aldeko pertsonaien –aurreko urteetako Gerra Zikinaren erlazioa izan zutenak– jarraipenaz baliaturik, aurreko faserako sortutako antolaketa birsortzeari ekin zioten, 1983an Gerra Zikinaren bigarren faseari hasiera emanaz.

Kanpora begira *Plan ZEN*-a indarrean jartzen zen bitartean, Estatuko segurtasuneko instituzioetan ETA-ren biolentziari aurre egiteko bide ezberdinak bilatzen hasi ziren. Sortu berria zen *Gabinete de Información y Operaciones Especiales*-k (GAIOE) egindako informe ezberdinek garbi uzten zuten, Frantziaren laguntza eza zela eta, ETA-ren terrorismoarekin akabatzeko bide bakarra profesionalek burututako indarraren erabilpena zela, taktika berdinekin eta beraien lurraldean, hots, Bidasoaren beste aldean.⁸⁹ Honekin bat egiten du Perotek *Lasa-Zabala auziari* buruzko epaiketan hurrengo baiezta zuenean: “zerbitzu sekretuak 1983ko otsailerako hasiak zire[n] Iparraldera jendea bidaltzen eta errefuxiatuen eta hango giroaren inguruko txostenak egiten”⁹⁰. Erabakiaren inguruan eztabaidatzeko segurtasuneko buruzagien arteko bilera ez ofizialak egon ziren. Hala ere, erabaki politiko definitiboa hartu baino lehen defentsarako instituzio nagusienak balizko Gerra Zikinaren antolaketa egin behar zuen.

1983ko uztailaren 6an GAL-en “sortze agiritzat” hartzen den txostena idatzi zuen CESID-eak, Emilio Alonso Manglanoren eskuz⁹¹. *Ekintza Frantzian*⁹² du izenburu txostenak. Gerra Zikina berriro abian jartzearen inguruko hausnarketa egiten du, honen kontrako eta aldeko faktoreak aztertuz⁹³. Ekintzak aurrera eramateko metodo hobereena zein izango litzateke azaltzen du, hala nola: “..., ekiteko modu gomendagarriena bahiketa bidezko desagerraraztea dela pentsatzen da”⁹⁴, edota “*incursiones rápidas a Francia, secuestros de dirigentes y posteriores interrogatorios...*”⁹⁵. Bitartean, Barne

⁸⁸ Salvados. “Bajando...”

⁸⁹ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 149 or.

⁹⁰ Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30...*, 20 or.

⁹¹ *Ibid.*, 20 or.

⁹² Dokumentu honen inguruan eta CESID-eak idatzitako beste dokumentuei buruz gehiago jakin nahi izatekotan, ikusi Woodworth, Paddy. *Guerra...* liburuaren 21. kapitulua.

⁹³ Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30...*, 19 or.

⁹⁴ *Ibid.*, 20 or.

⁹⁵ Rubio, Antonio eta Manuel Cerdán. *El origen...*, 36 or.

ministerioko buruzagiek EAE-ko gobernadore zibilekin zein bertako borroka antiterroristaren buruekin bilerak gauzatu zituzten⁹⁶, beraien kontrolpean zeuden aurreko Gerra Zikinaren elementuak prestatzeko eta antolatzeko⁹⁷.

GAL-ak, dagoeneko, sortuta zeuden eta 1983ko urriaren 5ean Alberto Martín Barrios-en bahiketak martxan jarri zituen. Haatik, hilabete batzuk pasa behar izan ziren ezagutzera eman arte. Bahiketa horrek aurretik CESID-eak bere txostenetan proposatutakoarekin hasteko aukera eman zuen. Alde batetik, jarraibideak jarraituz urriaren 15ean Joxean Lasa eta Joxi Zabala Baionan bahitu zituzten, gerora *Lasa-Zabala kasua* bezala ezagutuko dena. Helburua Martín Barriosen kokapenaren inguruan informazioa lortzea zen. Bestaldetik, urriaren 18an, pauta berdinak jarraituz eta helburu berdinarekin, Francisco Álvarez-ek, Bilboko Poliziako buruak, Jose Maria Larretxea Goñi-ren bahiketa prestatu zuen⁹⁸, polizia frantses baten agerpenak zapuztu zuena. Horretarako Álvarezek polizia-inspektore bat eta hiru GEO erabili zituen⁹⁹, hots, ESI-ak erabili zituen¹⁰⁰. Egun berdinean, Martín Barriosen gorpua agertu zen Oñatin. Hau izan zen GAL-en ekintzari hasiera ofiziala eman zion pizgarria eta taldea ezagutzera eraman zuen bahiketa gauzatzera bultzatuko zuena.

Bahiketa hura *Segundo Marey kasua* izenarekin ezagutzen da. Mertzenario profesionalen zerbitzuez baliaturik GAL-ek Mikel Lujua bahitu nahi zuten. Aitzitik, mertzenarioek okertu eta bizilaguna bahitu zuten¹⁰¹, Segundo Marey izenekoa. Nahiz eta GAL-etako buruek konfunditu zirela jakin, hamar egun bahiturik egon ondoren, Dantxarineako muga-postuan Marey askatu zuten, poltsikoan GAL-en sorrera zein helburuak azaltzen zituen eskuz idatzitako nota¹⁰² bat zuelarik:

“A causa del incremento de los asesinatos secuestros y extorsiones cometidos por la organización terrorista ETA sobre suelo español, programados y dirigidos desde territorio francés, hemos decidido eliminar esta situación.

Los Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL), fundados con este objetivo, exponen los puntos siguientes:

⁹⁶ Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30...*, 21 or.

⁹⁷ *Ibid.*, 22 or.

⁹⁸ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 173 or.

⁹⁹ *Ibid.*, 64 or.

¹⁰⁰ Aurrerago GAL Urdinaren egituraren atalean ESI-ek GAL-etan izan zuten pisua azalduko da.

¹⁰¹ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 69 or.

¹⁰² Nota originala frantsesez idatzita zegoen.

1. *Cada asesinato de los terroristas tendrá la respuesta necesaria; ni una sola de las víctimas permanecerá sin respuesta.*
2. *Manifestamos nuestra intención de atacar los intereses franceses en Europa, ya que su Gobierno es responsable de acoger y permitir actuar a los terroristas en su territorio impunemente. Ninguna personalidad y ningún objetivo de la economía francesa va a estar seguro en adelante.*
3. *En prueba de buena voluntad y convencidos de la valoración apropiada del gesto por parte del Gobierno francés, liberamos a Segundo Marey, arrestado por nuestra organización a causa de su colaboración con los terroristas de ETA. Recibirán noticias del GAL.*”¹⁰³

Hau da, GAL-en helburuak hurrengoak ziren: Talioiaren Legea ezartzea, alegia, ekintza-kontraekintza burutzea; ETA-ko kide erbesteratuen giroetatik beldurra hedatzea; Frantziari presioa egitea santutegiarekin amaitzeko¹⁰⁴; eta, hein batean, ETA desagerraraztea, zaila bazen ere¹⁰⁵.

Hemendik aurrera, GAL-ek jendaurrean egindako agerraldiarekin, Gerra Zikina bigarren fasean barneratu zen. Aurreko fasea kontuan harturik, ustez profesionalagoa eta eraginkorragoa izango zen talde paramilitar batez osatuta egongo zen hau.

3.1. GAL URDINAREN ANTOLAKETA

Sarreran aipatu den bezala, GAL-en baitan, sektore desberdinak aurkitzen ziren. Azaldutako arrazoiengatik, jarraian GAL Urdina aztergai hartuko da eta honen antolaketa zein egitura azalduko dira.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da GAL Urdinean bi fase desberdintzen zirela. Lehenengoa 1983tik 1984eko otsaila artekoa izan zen, non Pirinio Atlantikoko departamentura murrizten zen eta atentatuak selektiboagoak ziren. Bigarrena 1984etik 1987ra arte iraun zuen, non EAE-ra hedatu ziren eta hildakoak bereizi gabe hiltzen zituzten, ETA-rekin zerikusirik ez zuen jendea akatuz¹⁰⁶.

¹⁰³ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 71 or.


¹⁰⁴ Horretarako terrorismoaren arazoa bere kaleetara hedatzearekin batera, ETA-rekin zerikusirik ez zuten pertsonak hiltzea begi onez ikusten zuten ere, presioa asko handitzeko helburuarekin.

¹⁰⁵ Morán Blanco, Sagrario. *ETA...*, 186 or.

¹⁰⁶ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 129 or.

Antolaketa azaltzeko José Amedo Foucek, GAL Urdinaren antolatzaile nagusiak, bere liburuan, *Cal Viva*-n, argitaratutako organigrama (ikusi 1. irudia) erabiliko da, izan ere, ideia on bat hartzeko baliagarria da eta. Organigrama hura sortzeko Amedo bere esperientzian zein Baltasar Garzónek ezarritako egia juridikoan oinarritu zen¹⁰⁷.

Azalpena organigramaren goiko partetik eta lehenengo fasea azaltzen hasiko da. Fase horretan, Gerra Zikina berrartzeko erabaki politikoa hartu zenean, aurretik zetorren antolamendua berrerabiltzea erabaki zen, batik bat BVE-ren ardatzaren berrerabilpena. Hori bai, askoz ere perfektionatuta, sare eta babes logistiko zein ekonomiko handiago batekin¹⁰⁸.



1. Irudia: GAL Urdinaren organigrama

Iturria: Amedo Fouce, José. *Cal Viva* ...

¹⁰⁷ Gainera, beste iturriekin egiaztatu ostean ondo dagoela ziurtatu naiz.

¹⁰⁸ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 167 or.

Antolaketa guztiaren zuzendariak, Baltasar Garzónen epaiaren arabera, José Barrionuevo eta Rafael Vera izan ziren. Hala ere, ikerlari batzuek, GAL-en egituraketa, baliabideak eta abar ikusita, ondorioztatzen dute Felipe González eta Juan Carlos I.ak organigramaren goiko puntan egon beharko liratekeela, gutxienez erantzukizun politikoei dagokionez¹⁰⁹. Barne ministerioko pertsonaiak zuzendariak baziren ere, hemen ere “ez jakitearen” sistema erabiltzen zuten, hots, ahalik eta datu gutxien zekizkiten eta gehiengoa bere azpikoen eskuetan uzten zuten.

Ondoren, Julián Sancristobal zegoen eta honen helburua, lehen aipatutako bileran azaldu den bezala, bere eskualdean “aurretik zeuden polizia horiek hobeto funtzionatzeko era”¹¹⁰ bilatzea zen, hots, antolakuntza bat gauzatzea. Honekin batera, antzeko maila batean García Damborenea zegoen, antolaketa zein garapenean eragin nabarmena izan zuena¹¹¹. Jarraian, Sancristobal eta Damborenearekin GAL Urdinaren antolaketa gauzatuko zuten menpekoak etorriko lirateke, Francisco Álvarez, Euskal Herriko koordinazio antiterroristaren buru, eta Miguel Planchuelo, Informazio Brigadako buru¹¹². Hauek, pentsatzen da, bere menpekoekin eraso-talde ezberdinen sorrera adostu zutela.

Organigramean beherago jotzen bada, GAL Urdinaren protagonistarekin topo egiten da, José Amedo Foucerekin. Hura Sancristobalek eskura zituen artean Frantziako hegoaldean kontaktu gehien zituena zen; polizia frantsesak, enpresari etab., eta honen betebeharrak mertzenarioak kontratatzea eta atentatuak zuzentzea ziren¹¹³. Funtsean, bera goiko eta mertzenarioen arteko lotura zen. Azken finean, esan daiteke GAL Urdinean gertatzen zen guztiaren kontrola zeukala Amedok. Inspektoreak ekintza guzti hori aurrera eramateko Michel Domínguez, Amedoren menpekoa, hartu zuen laguntzaile gisa, batik bat frantsesa oso ondo menderatzen zuelako, eta, nagusiki, itzultzaile bezala erabiltzen zuen¹¹⁴. Lehen aipatutako kontaktuen bidez Amedok mertzenarioak eta informazioa eskuratzeko pertsonak lortu zituen. Kontaktu horiek asko ziren, ondorioz, jarraian soilik garrantzitsuenak azalduko dira.

¹⁰⁹ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 373 or.

¹¹⁰ Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30...*, 22 or.

¹¹¹ *Ibid.*, 27 or.

¹¹² Lau hauei, Sancristobal, Damborenea, Francisco Álvarez eta Planchuelori, GAL-en sorrera leporatu zien Garzónék (Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30...*, 27 or.)

¹¹³ Amedo Fouce, José. *Cal Viva ...*, 52 or.

¹¹⁴ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 339 or.

Lehenik eta behin polizia eta zerbitzu sekretu frantsesean zituen bitartekoak azalduko dira, ikerlari batzuen lanetan GAL Txuria¹¹⁵ edo *Frantsesa*¹¹⁶ bezala ere ezagutzen direnak. Lehenengoa Jacques Castets da, Baionako Polizia Judizialaren inspektore nagusia zena¹¹⁷. Hori zela eta, ETA-ko kideen inguruko informazioa lortzeko pertsona garrantzitsuan bilakatu zen, alabaina, euskal komunitatearen gune nagusian lan egiten baitzuen, eta honek lor zezakeen informazio kuantitatibo zein kualitatiboki oso handia baitzen¹¹⁸. Beraz, honen helburua errefuxiatuen informazio zehatza lortzea zen: bizitokia, argazkiak etab.¹¹⁹. Hurrengoa Gerald Manzanal da, Baionako Legio kanpotarraren zuzendaria¹²⁰. Hura Castets inspektoreari esker ezagutu zuen Amedok¹²¹ eta Gerald-en postua zela eta, pertsonaia garrantzitsu bezala ikusi zuen mertzenarioak lortzeko. Honek hanpa munduko pertsonak ezagutzen zituen¹²², eta, gainera, ex-OAS-ekin erlazio ona zeukan¹²³. Honen ondorioz, Gerald en eginkizun nagusia Amedo legionario ohiak eta ex-OAS-ak harremanetan jartzea zen¹²⁴. Aipatu behar den hirugarren partaidea Guy Metge da, Aireko eta Mugetako Poliziako (PAF) komisarioa zena¹²⁵. Honen helburu nagusiak informazioa igortzeaz gain, delitugile nahiz mafiosoekin kontaktuak ematea, armak lortzea eta mertzenarioen eraginkortasuna prestatzeko azpiegituraren prestaketak ziren¹²⁶. Azkenik, Jean Louis delako pertsonaia dago eta Amedok bere liburuan asko aipatzen duelako azalduko da. Hala ere, “[o]raindik ere Jean Louis hori nor den argitzeko dago (...) [h]ori bai, atxilotutako mertzenarioek maiz aipatu zuten Jean Louis, hainbat ekintzatan hark seinalatzen zuelako jomuga zuzena”¹²⁷.

Bigarrenik, GAL *Frantsesatik* kanpo, Christian Hitier azaldu behar da, Cheriden eskutik taldean sartu zena¹²⁸. Honen inguruan esan beharra dago, bere kontaktuak zirela eta, antolaketarako funtsezko pertsonaia izan zela. OAS zein hanpa munduan murgiltzen zen komando ezberdinetarako mertzenarioak lortzeko.

¹¹⁵ García, Javier. *Los GAL al...*, 20 or.

¹¹⁶ Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30...*, 25 or.

¹¹⁷ Amedo Fouce, José. *Cal Viva ...*, 68 or.

¹¹⁸ *Ibid.*: 68

¹¹⁹ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 354 or.

¹²⁰ *Ibid.*, 345 or.

¹²¹ *Ibid.*, 354 or.

¹²² *Ibid.*, 346 or.

¹²³ Amedo Fouce, José. *Cal Viva ...*, 67 or.

¹²⁴ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 347 or.

¹²⁵ Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30...*, 25 or.

¹²⁶ Amedo Fouce, José. *Cal Viva ...*, 65-66 orr.

¹²⁷ Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30...*, 25 or.

¹²⁸ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 323 or.

Azkenik, lehenengo fase honen pertsonaia nagusiekin amaitzeko, aurreko orrialdeetan aipatutako Gerra Zikinaren berreskurapenaren inguruan hitz egin behar da. Lehenik eta behin azpimarratu behar da fase horretan erabilitako mertzenario askok, italiarrak batik bat¹²⁹, PSOE-k boterea eskuratu zuenean alde egin zutela. Gelditutako mertzenarioen artean Jean Pierre Cherid zegoen, pertsonaia oso garrantzitsua izan zena. Hori zela eta, honen zerbitzuak berreskuratu ziren. Cheridek ex-OAS-eko mertzenarioez osatutako komandoa sortu zuen eta antolaketan, Hitierrekin batera, funtsezko pertsonaian bilakatu zen. Ez hori bakarrik, logistikaz ere arduratzen zen¹³⁰. Halaber, gerora GAL-etan oso garrantzitsuak izango ziren pertsonaiak lortu zituen ere, lehen aipatutako Hitier adibidez¹³¹.

Halabeharrez, 1984eko lehenengo erdialdean gertatutako bi ekintzek GAL Urdinaren norabidea guztiz aldatu zuten, bigarren faseari hasiera emanez. Lehenengoa Sancristobalek, otsailean, Veraren postua bereganatzea izan zen. Berarekin batera Francisco Álvarez Madrilera eraman zuen, GAIOE-ko zuzendari bezala¹³². Bigarrena 1984eko martxoan gertatu zen, noiz Jean Pierre Cherid atentatu bat prestatzen zegoelarik, manipulatzeko ari zen bomba lehertu zen, haren bizitzarekin akabatuz¹³³. Cheridek taldean zeukan garrantzia zela eta, kolpe latza izan zen. Hala ere, Amedo eta Domínguezek azkar ordeztu bat aurkitu zuten, Jean Philippe Labade¹³⁴. Guzti honek azpizaldearen berregituraketa ekarri zuen, aktibitatearen etenaldia sortuz. Behin eginda, Sancristobalen eraginaren ondorioz, GAL Urdinaren aktibitatearen hazkundera eman zen¹³⁵, epe odoltsura zein bortitzera hasiera emanez, non atentatu selektiboak indiskriminatuengatik baztertu zituzten¹³⁶.

Pixkanaka Amedoren bitartekarien kontaktuen sarea handitzen joan zen, mertzenario sare handiagoa lortuz¹³⁷. Hori zela eta, leku ezberdinetako mertzenarioak lortu ziren, zeinetatik bi izango dira aipatuko direnak, Andorra eta Portugal.

¹²⁹ Rubio, Antonio eta Manuel Cerdán. *El origen...*, 36 or.

¹³⁰ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 88 or.

¹³¹ *Ibid.*, 323 or.

¹³² *Ibid.*, 409 or.

¹³³ *Ibid.*, 85 or.

¹³⁴ *Ibid.*, 180 or.

¹³⁵ *Ibid.*, 409 or.

¹³⁶ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 129 or.

¹³⁷ Amedo Fouce, José. *Cal Viva ...*, 88 or.

Lehenengoari dagokionez, Hitierren eskutik lortu zen. GAL-etako kidea Andorran bizi zelarik, bertan egindako kontaktuak erabiliz, *Dama Negra*¹³⁸ ezizenarekin ezagutuko den mertzenariorik efektibo eta hoberena erreklutatu zuen¹³⁹. Mertzenarioak lortzeaz gain, Hitierrek armak ere eskuratu zituen, eta, horretarako, Jean Paul Rossell-en laguntza izan zuen, armen merkatuan lan egiten zuenak¹⁴⁰.

Bestaldetik, Portugaleko konexioan barneratuz, protagonista Labade izan zen¹⁴¹, zeinak bertako mertzenarioen kontaktua eskuratzea lortu zuen. Portugalen bizi zelarik bertako zerbitzu sekretuetarako, DINFO-rako, lan egiten zuen pertsona batekin harremanetan jarri zen eta honi esker bertako militarren eta ex-militarren kontaktuak eskuratu zituen¹⁴².

Laburbilduz, Amedo GAL Urdinaren pieza klabea zen, bera baitzen goikoen interesak betetzeko langileak bilatzen zituen pertsona. Horretarako, mertzenarioak eta informazioa eskuratu behar zizkieten kontaktu ezberdinez inguratu zen. Gainera, mertzenarioei dagokionez, Amedok OAS, Portugaleko zerbitzu sekretuak eta Espainia nahiz Frantziako hanpa zein droga mundua harrobi bezala erabili zituen.

Azkenik, antolaketarekin amaitzeko, azpimarratu behar da hasieratik helburua soilik mertzenario profesionalak erabiltzea zela. Hala ere, askoren ihesaldia zein abiarazte goiztiarrak ESI-eko funtzionarioen partaidetza behartu zuen¹⁴³, Amedok sare sendo bat sortu arte, azpitaldearen lehenengo atentatueta ikus daitekeen bezala.

3.2. MODUS OPERANDI

Behin GAL Urdinaren antolaketa ikusita dagoela, honen funtzionamenduaren inguruan hausnartuko da, alegia, atentatuak nola prestatzen eta gauzatzen ziren azalduko dira. Lehenik eta behin azpimarratu behar da atentatu aunitz egon eta bata bestearekiko nahiko desberdinak izan zirela, hortaz, ezaugarri orokorretara joko da atal hau bideratzeko.

¹³⁸ Pertsonaia honen inguruan mito asko daude. Polizia frantsesak aurkitu eta epaitu duela esaten badu ere, ez dago argi nor izan zen benetako *Dama Negra*. Adibidez, Amedok bere liburuan *Dama Negra* 3 pertsona ezberdinak izan zirela aipatzen du. Gainera, GAL-etako kideak izandakoen deklarazioek ez dute batere errazten mito horren ebazpena.

¹³⁹ Amedo Fouce, José. *Cal Viva ...*, 134 or.

¹⁴⁰ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 323 or.

¹⁴¹ *Ibid.*, 240 or.

¹⁴² *Ibid.*, 241-243 orr.

¹⁴³ Rubio, Antonio eta Manuel Cerdán. *El origen...*, 36 or.

Amedori egindako elkarrizketa batean biktima eta atentatuaren aukeraketak nola egiten ziren azaltzen zuen. Honek GAL *Frantsesetik* eta Espainiako Estatutik lortutako ETA kideen zerrenda bat jasotzen zuen, bere bitartekariari bidaltzen ziena. Jarraian, hauek, jarraipen bat egin eta balizko atentatua bideragarria ikusten zutenean, hots, plan bat burutzen zutenean¹⁴⁴, Amedok Sancristobal edo Verarekin hitz egiten zuen¹⁴⁵. Ondoren, hauek Barrionuevoren¹⁴⁶ biltzen ziren, zeinak atentatua onartu behar zuen¹⁴⁷. Beraz, Amedoren esanetan, Barne-ministerioak erabakitzen zuen zein atentatu gauzatu eta zein ez. Hala ere, ez zituzten atentatu guztiak onartzen. Izan ere, Amedok bere liburuan esaten duen bezala, ETA-ko buruzagi zein pertsonaia karismatikoen hilketa saihestu nahi zuten, etorkizuneko balizko negoziaketa errazagoa izan zedin¹⁴⁸. Behin atentatua onartua zegoelarik, Amedok plana aurrera eramango zuten mertzenarioekin biltzen zen¹⁴⁹ eta, ondoren, mertzenarioei armak leku ezberdinetatik helarazten zizkien, adibidez, zuloak erabiliz¹⁵⁰ edota eskura emanaz¹⁵¹.

Atentatua gauzatzen zen bitartean, ikerlari askok azpimarratzen dute Amedo eta Domínguez Donostiako Kursoal Kasinoan zeudela¹⁵², zeina, hein handi batean, polizien zuzendaritza gunea zela uste zen¹⁵³.

Exekuzioari dagokionez, bi desberdintzen ziren batik bat. Lehenengoa lehegailuen erabilpena zen, lehenengo fasean gehiago erabiltzen zena, hots, eraso selektiboa gailentzen zenean. Bigarrena, ordea, tiroketa zen. Hura GAL Urdinaren garai odoltsuenean ezaugarri nagusi bat izan zen, atentatu mitikoak sortuz, hala nola Monbar hoteleko tiroketa. Exekuzio mota honetan mertzenarioak euskal giroko tabernetara joaten ziren eta barruan jende asko zegoela aprobeixaturik, tiro egiten zuten, begirunerik gabe, ahalik eta hildako gehien sortu nahian.

¹⁴⁴ Amedo Fouce, José. *Cal Viva ...*, 102 or.

¹⁴⁵ Intereconomiatube. “Amedo revela que Felipe González era el Señor ‘X’ de los GAL y que Garzón le encerró sin comida”. Bideo Online. *YouTube*. YouTube, 2013ko urriak 8. Webgunea: <https://www.youtube.com/watch?v=HZWYLA22SK0> (kontsulta data: 2019ko maiatzak 4)

¹⁴⁶ Intereconomiatube. “Amedo revela que Felipe...”

¹⁴⁷ Amedo Fouce, José. *Cal Viva ...*, 102 or.

¹⁴⁸ *Ibid.*, 102 or.

¹⁴⁹ *Ibid.*, 166 or.

¹⁵⁰ Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 198 or.

¹⁵¹ Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30...*, 25 or.

¹⁵² Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo...*, 170 or.

¹⁵³ Nacion Vasca. “1983-1989 Historia de la banda terrorista española”. Bideo Online. *YouTube*. YouTube, 2013ko abenduak 12. Webgunea: https://www.youtube.com/watch?v=jgMuK_-V-sw (kontsulta data: 2019ko maiatzak 10)

Azkenik, atal honekin amaitzeko, ekonomiaren inguruan hitz egin behar da, izan ere, mertzenarioek ez baitzuten musutruk lan egiten. Amedok, atentatua gauzatu baino lehenago mertzenarioekin biltzen zenean, prezioak ezartzen zizkien. Mertzenarioen esanetan, hildako bakoitzarengatik 10 milioi pezeta¹⁵⁴ ordaintzen ziren¹⁵⁵, eta 50.000 franko -1,27 milioi pezeta- zauritu bakoitzarengatik¹⁵⁶. Ez hori bakarrik, aurreko atalean aipatutako bitartekariak ere emandako zerbitzuarengatik kobratu egiten zuten. Beraz, babes ekonomiko handia behar zuen GAL Urdinak aurrera egiteko. Hura barne-ministerioko diru bereizietik ateratzen zen¹⁵⁷, hots, Estatuak GAL-etan dirutza inbertitzen zuen.

4. ONDORIOAK

Modu orokor eta azaletik ikusi da lan honetan GAL-en gaia. Hala ere, analisi sakon bat burutu ez arren, ondorio batzuk ateratzeko aukera dago. Beti ere, kontuan harturik, dokumentuen desklasifikazioa eman arte zalantzarriak izan daitezkeela.

Grupos Antiterroristas de Liberación delakoen sorrera Espainia demokrazian eta gizarte espainiarra egoera gogor batean zegoenean eman zen. Trantsizioa ukatzen zuen talde armatuak, ETA-k, urtero hildako asko uzten zituen. Honen aurrean, Espainiako gobernuak segurtasuna bermatzeko helburuarekin, erantzun eraginkor bat eman behar zuen, haatik, oso zaila egiten zitzaion eta isolaturik zegoen. Kontuan hartu behar da bi estatu ezberdinetan aritzen zen talde armatua zela ETA, beraz haren kontrako borrokan Frantziaren laguntza ezinbestekoa zen. Hala ere, Frantziak, arrazoi ezberdinengatik, sortutako santutegiaren existentzia ukatzen zuen, laguntza ezeztatuz. Egoera konpontzeko helburuarekin eta hausnarketa luze baten ondoren, PSOE-ko kide batzuek pentsatu zuten Gerra Zikina berreskuratzea ideia ona izan zitekeela, GAL-ei sorrera emanaz. Erabaki politiko horretan, baliteke, AEF bezalako herrialde demokratikoen politika antiterroristek eragina izatea. Sortzaile horiek Garzónen epaiaren arabera, Sancristobal, Damborenea, Álvarez eta Planchuelo izan ziren. Egia da egoera zaila zela, baina ez zeuden behartuta erabaki hura hartzera, hots, aukeratutako bidea izan zen.

¹⁵⁴ *Terra de Ninguém*. Salomé Lamas (zuz.). Paulo de Figueiredo. O Som e a Fúria, 2012. Dokumentala.

¹⁵⁵ Paddyren liburuan Monbar Hoteleko tiroketaren mertzenarioek esan zuten hildako bakoitzarengatik 200.000 franko zirela, hots, 5,7 milioi pezeta. Beraz, pentsa daiteke ordainketa prezioa ez zela beti berdina.

¹⁵⁶ Woodworth, Paddy. *Guerra...*, 145 or.

¹⁵⁷ Barne ministerioko diru bereiziaren gaiak arreta handia behar duen aztergaia da. Askok ikertu da honen inguruan, aitzitik, ez dago oraindik guztiz argi. Antonio Rubio eta Manuel Cerdanek honen inguruan asko ikertu dute eta gaiaren inguruan gehiago jakin nahi izatekotan bere lanak irakurtzea gomendatzen da.

Behin bide hori aukeratuta zegoela, trantsizio erreformistak purgatu ez zituen funtzionarioen zerbitzuak oinarri bezala erabili zituzten GAL-ei gorputza emateko.

GAL Urdina, Barne-ministerioko eta EAE-ko gobernadore zibilen arteko ustezko bileraren ostean antolatzen hasi zen. Antolaketa hori burutzeko, Sancristobalek Amedorekin hitz egin zuen. Amedo oinarri nagusia izanda, Pirinio Atlantikoan zehar zituen kontaktuei esker, gehi Gerra Zikineko lehenengo faseko sare batzuk erabiliz, GAL Urdinaren egitura osatu zen. Hasierako helburua komandoak mertzenario profesionalez osaturik egotea zen, ESI-eko funtzionarioen parte-hartzea murriztuz, haatik, ikusitako arrazoi ezberdinengatik ez zen bete. Pixkanaka, Amedoren inguruan sortutako antolaketa zabaltzen joan zen, *rizzoma* motatako organizazioa sortuz. Bertan parte hartutako mertzenario zein informatzaileek diru askoren truke lan egin zuten, hots, GAL Urdinak finantziario handia behar zuen. Hura Estatuaren diru bereizietatik lortzen zuten, alegia, Estatuak GAL-ak finantziatzen zituen.

Balorazio gisa GAL-ek, Estatuak finantzatutako diruarekin, 27 hildako utzi zituzten. Helburu nagusia, Frantziaren kolaborazioa, lortu bazuen ere, EAE-en, ezker abertzaleko giroan, Espainiako demokraziaren legitimazioa kolokan jarri zuen, ETA-ri indar gehiago emanaz. Bestalde, PSOE-ko gobernuak bere bidean jarraitu zuen, pixkanaka ESI-en garbiketa gauzatuz eta zuzenbide Estatu bat eraikiz. Azkenik, azpimarratu behar da gaur egun erantzun askoren faltan, oraindik honen inguruan asko ikertu behar dela GAL osoak ulertu ahal izateko. Historia iluneko pasarte bada ere, ezin da lurperatu, gure historiako zati bat baita.

5. BIBLIOGRAFIA

- Aguilar Fernández, Paloma. “Memoria histórica y legados institucionales en los procesos de cambio político”. *Revista Internacional de Filosofía Política* 14 (1999), 31-46 orr.
- Amedo Fouce, José. *Cal Viva. Un relato estremecedor: la verdad definitiva desde las entrañas de los GAL*. Madril: La Esfera de los Libros S.L., 2013.
- Cassan, Patrick. *Francia y la cuestión vasca*. Tafalla: Txalaparta, 1998.
- De la Granja, José Luis, Justo Beramendi eta Pere Anguera. *La España de los nacionalismos y las autonomías*. Madril: Editorial S.A., 2001.
- Díaz Cerveró, Elba. “La representación del terrorismo de ETA en el diario francés Le Monde.”. *Doxa.comunicación* 9 (2009), 165-189 orr.
- Fernández Soldevilla, Gaizka. “Ellos y nosotros. La cumbre de Chiberta y otros intentos de crear un frente abertzale en la transición”. *Historia del presente* 13 (2009), 97-132 orr.
- Fusi, Juan Pablo eta José Antonio Pérez (ed.), *Euskadi 1960-2011: Dictadura, transición y democracia*. Madril: Editorial Biblioteca Nueva, S.L., 2017.
- García, Javier. *Los GAL al descubierto: la trama de la “guerra sucia” contra ETA*. Madril: El País-Aguilar, 1988.
- Goenaga, Eider (koord.). *GAL 30 urte*. Donostia: Elkar Argitaletxea; Andoain: Berria L.G., 2013.
- González Calleja, Eduardo. *El Laboratorio del Miedo: Una historia general del terrorismo, de los sicarios a Al Qa’ida*. Bartzelona: Editorial Crítica S.L., 2013.
- Miralles, Melchor, Ricardo Arques. *Amedo: El Estado contra ETA*. Bartzelona: Plaza & Janes/Cambio 16, 1989.
- Morán Blanco, Sagrario. *ETA Entre España y Francia*. Madril: Editorial Complutense, 1997.

Rubio, Antonio eta Manuel Cerdán. *El origen del GAL: "guerra sucia" y crimen de estado*. Madril: Ediciones Temas de Hoy S.A., 1997.

Ruiz, David. *La España Democrática (1975-2000): Política y Sociedad*. Madril: Editorial Síntesis S.A., 2002.

Woodworth, Paddy. *Guerra Sucia, Manos Limpias: ETA, el GAL y la democracia española*. Bartzelona: Editorial Crítica S.L., 2002.

6. ITURRI DIGITALAK

Intereconomiatube. "Amedo revela que Felipe González era el Señor 'X' de los GAL y que Garzón le encerró sin comida". Bideo Online. *YouTube*. YouTube, 2013ko urriak 8. Webgunea: <https://www.youtube.com/watch?v=HZWYLA22SK0> (kontsulta data: 2019ko maiatzak 4)

Nacion Vasca. "1983-1989 HISTORIA DE LA BANDA TERRORISTA ESPAÑOLA GAL". Bideo Online. *YouTube*. YouTube, 2013ko abenduak 12. Webgunea: https://www.youtube.com/watch?v=jgMuK_-V-sw (kontsulta data: 2019ko maiatzak 10)

Salvados. "Bajando a las cloacas 2". Bideo online. *Atresplayer*. Atresplayer, 2018ko apirilak 29. Webgunea: https://www.atresplayer.com/lasexta/programas/salvados/temporada-13/bajando-a-las-cloacas-2_5ae35b69986b2898b3282410/ (kontsulta data: 2018ko abenduak 20)

Sierra, Julio. "Detalles desconcertantes en el suicidio de los tres dirigentes del grupo Baader-Meinhof", *El País*, 1977 urriak 19. Webgunea: https://elpais.com/diario/1977/10/19/internacional/246063613_850215.html (kontsulta data: 2019ko maiatzak 10)

Terra de Ninguém. Salomé Lamas (zuz.). Paulo de Figueiredo. O Som e a Fúria, 2012. Dokumentala.